

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideen bitartez, balorezko proposamena garatu, bezeroengana iritsi, bezeroekiko harremana mantendu eta, azkenik, diru sarrerak lortu ahal izango ditugu.

## BALIABIDE FISIKOAK

Lana egiteko espazioari dagokionez, ez genuke lokalik alokatu beharko, gure kidea den Manexek, lokal bat baitu soberan, guri uzteko prest duena. Gailuei dagokionez berriz, ez genuke gastu handirik izango, ordenagailuak, kamerak, bideoak editatzeko aplikazioa eta beste hainbat tresna eskuragarri baititugu. Izan ere, proiektu-kide bakoitzak bere ordenagailua du eta bi kamara digital ditugu. Erosi beharko genituzkeen gailu bakarrak, arbel pare bat eta arbeleko errotugailuak, fokoak eta estudioko beste zenbait material izango liritezke, mahaiak, aulkiak eta lokala beraren apainketa hala nola.

## FINANTZA-BALIABIDEAK

Proiektua martxan jartzean gastu handiak izango ditugu. Hori dela eta, kide bakoitzak 6.500€ inbertituko ditu, guztira, 32.500€ osatuz.

## BALIABIDE INTELEKTUALAK ETA GIZA BALIABIDEAK

Taldeko kide bakoitzak bere abilezia eta gaitasun propioak ditu, hortaz, lana banatuko genuke, honela, bakoitzaren abileziak indartuz.






## EÑAUT

Bideoak grabatzeko gaitasuna.




## MANEX

Salmentarako abilezia.



## JON

Bideoak editatzeko gaitasuna.



## XABI

Bezeroekiko harremanerako abilezia.



## EKAIN

Bideoak editatzeko gaitasuna.